

Entzute Prozesuaren Azken Txostena

Busturialdea-
Urdaibai



AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies



COLUMBIA CLIMATE SCHOOL
ADVANCED CONSORTIUM ON COOPERATION,
CONFLICT, AND COMPLEXITY



Sarrera

Txosten honek Busturialdea-Urdaibain egindako entzute prozesuaren ondorio nagusiak jasotzen ditu, eskualdean Guggenheim Bilbao Museoaren balizko hedapenari buruzkoak, Agirre Lehendakaria Centerrek AC4-Columbia University eta TZBZekin lankidetzan garatua Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren enkarguz. Dokumentu honek 2025eko uztailean argitaratutako aurretiko txostena osatzen du.

Prozesu honek iraun duen 10 hilabeteetan, 1.002 narratiba indibidual bildu dira, eta horiek 7 interpretazio kolektiboko saioaren bidez kontrastatu dira.

Informazio hori guztia 2025eko abenduaren 1ean eta 2an Urdaibai Ekoetxean egindako nazioarteko mintegian kontrastatu eta aberastu zen.

Euskal erakundeek Urdaibain museoa hedatzeko proiektuarekin aurrera ez jarraitzea erabaki ondoren, dokumentu honek balioa izaten jarraitzen du, euskal gizarteak lurraldearen beharrezko trantsizio sozioekologikoari nola aurre egin diezaiokeen eztabaida aberasteko.



Prozesua



Entzute prozesua eskualdeko banakako narratiben bilketan eta analisisian kontzentratu da. 2025ean, Agirre Lehendakaria Center-eko taldeak, AC4-Columbia University eta TZBZ-rekin lankidetzan, 949 pertsonarekin izan ditu elkarrizketak. Kasu batzuetan, bigarren elkarrizketa bat egin da gai zehatzetan sakontzeko eta pertzepzioetan aldaketa esanguratsurik izan ote zen egiaztatzeko, erakundeek Urdaibaira Guggenheim Bilbao museoa hedatzeko proiektuarekin ez jarraitzea erabaki ondoren. Horregatik, guztira 1002 narratiba bildu dira. Elkarrizketa guztiak grabatu -elkarrizketa gutxi batzuetan izan ezik, elkarrizketatuak ez baitu elkarrizketa grabatzerik nahi izan-, anonimizatu eta prozesatu dira eta honetarako sortutako espazio digitalean argitaratu dira urdaibai.agirrecenter.eus

Elkarrizketa gehienak aurrez aurre eta telematikoki egin dira, nahiz eta iritzi idatziak eta audio bidezkoak ere jaso diren. Adinari dagokionez, parte-hartzaileen banaketa orekatua izan den arren, 45 eta 64 urte bitarteko pertsonak dira talderik ugariena (%42,89).

Gazteen eta adin ertainaren presentzia ere nabarmena da: 18 eta 29 urte bitartekoak

%13,49 eta 30 eta 44 urte bitartekoak %23,08 dira. Bestalde, 65 urtetik gorakoek parte-hartzaileen %20,55 ordezkatzeko dute. Generoari dagokionez, parte hartzea oso orekatua izan da: emakumeak %52,37 eta gizonak %47,63. Parte-hartzaileen %5,58 eskualdetik kanpo jaioak dira, baina bertan bizi dira.

Elur-bolaren laginketaren bidez jasotako narratibak interpretazio kolektiboko espazioetan aztertu dira, profil etnografikoen bidez aurkeztuta. Profil horiek ez dira aldagai demografikoetatik abiatuta eraikitzen, narratiben analisi gurutzatutik sortzen diren zentzu-patroi partekatuetatik baizik. Horrez gain, tresna digitalean kodetze tematikoa eta erlazionala egiten da analisi hori osatzeko. Horri esker, hainbat pertzepzio nola konektatzen diren, zer kontraesan sortzen diren eta denboran zehar zer elementu errepikatzen, aldatzen edo indartzen diren ikus daiteke.




Patroi Narratiboak

Entzute prozesuan bost patroi narratibo bereizi agertu dira ekimenaren aurrean eta, modu zabalagoan, eskualdearen etorkizunaren aurrean kokatzeko modu desberdinak islatzen dituztenak.

Homogeneoak edo itxiak izan beharrean, patroi hauek ahots pluralak biltzen dituzte —adinari, generoari, ideologiari edo lanbideari dagokionez— antzeko argudioak, kezak edo lehentasunak partekatzen dituztenak.

Bost patroi hauek ez dute museoari buruzko jarrerak soilik erakusten, baizik eta baita, garapena, gobernantza, parte hartzea eta identitatea Urdaibain ulertzeko modu desberdinak ere.



001

Lehen patroi narratiboa



“Guggenheim museoa Urdaibaira zabaltzearen aurka nago erabat”.

• **Lehen patroi hau eskualdean museoa handitzeko aukeraren aurkako jarrerarik zuzenena da.**

Bere helburu nagusia da proiektu hori ez gauzatzea, eta uste du eztabaida gai horretan zentratu behar dela, eskualdearen garapenarekin zerikusia duten beste gai garrantzitsu batzuk badauden arren.

Interpretazio kolektiboetan adin bat eta fikziozko lanbide bat esleitu badizkiogu ere, patroik horren beraren barruan belaunaldi, genero, okupazio edo ideologia eta posizio politiko ezberdinek bat egiten dute.

Bere argudioak sendoak dira: museoa Muruetako hezegunean kokatu ahal izateak ez du indarrean dagoen legedia errespetatzen, ez dago proiektuari buruzko informazio nahikorik eta erabakiak herritarren borondatearen kontra hartu dira.

001



Profilaren eboluzioa:

Entzute prozesuaren analisi longitudinalaren barruan, **esan daiteke hasiera batean patroik hau izan zela lanaren lehen faseetan ordezkatuena**. Elur-bolan oinarritutako laginketa kualitatiboetan gertatu ohi den bezala, lehenik ahots mobilizatuenak eta inplikatuak agertzeko joera dute.

Interpretazio kolektiboko espazioek erakutsi dute patroik hau NIMBY motako jarrerekin lotzen denean («nere etxetik urrun», ingelesezko *“not in my back yard”* laburduraz) 2. patroiak berez dituen ñabardura esanguratsuak barneratzen dituela.

002

Bigarren patroi narratiboa



“Handitzearen aurka nago, baina eskualdearen garapenaz hitz egin nahi dut”.

• Bigarren patroi hori ere museoaren aurka dago, baina eztabaida eskualdearen garapenean zentratzea beharrezkoa dela uste du.

Lehentasun edo premia kontua da. Patroi hori ideologia, genero eta belaunaldi ezberdinek ere partekatzen dute.

Patroi honetan jasotako narratibek Urdaibai gelditu eta gainbeheran dagoela diote. Eskualdeko Plan Estrategiko berriaren baitan instituzioak bultzatzen ari diren proposamenak eta lehentasunezko jarduerak-eremu izendatzea (ZAP) ezagutu arren, inbertsio ekonomikoa nahikoa ez dela uste dute, azalekoa izan da eztabaida, eta hain kritikoak ez diren eragileetara mugatua.

002



Profilaren eboluzioa:

Patroi honek marko zabalagoa eskaintzen du ingurumen-arazoarekin soilik identifikatzen ez diren pertsonentzat. Lurraldeko lehentasunen azpimarrak (industria jasangarria, etxebizitza, garraioa, zaintza eta enplegu egonkorra) ikuspegi desberdinen arteko topaleku gisa funtzionatu du.

Eztabaidaren ardatz nagusia museoaren hedapena izatetik, eskualdeak behar duen garapen ereduari buruzko gogoeta zabalago batera eboluzionatzen du. 1002 narratiba aztertu ondoren, **egiaztatzen dugu patroia hau dela gaur egun prebalentzia handiena duena.**

003

Hirugarren patroi narratiboa

Patroi Narratiboak



“Alde nago, zerbait egin behar dugu”.

• Patroi horrek ordezkatzon dituen museoaren balizko handitzearen alde daudenak.

Gainbehera egoera baten aurrean inizatiba hartu behar dela da bere argudio nagusia. Bere hitzetan, instituzioek ekimen traktore eta disruptiboak planteatzeko ardura eta zilegitasun demokratikoa dute eta kritikak sor daitezkeela jakitun diren arren, beti proposamen berriak zalantzan jartzen dela argudiatzen dute... funtzionatzen duen arte.

Normalean erakundeak kritikatzon ditugula uste dute, nahikoa ez egiteagatik, eta egiten dutenean, zalantzan jartzen dituzte. Bilboko Guggenheim Museoarekin gertatu zenarekin alderatu dute: hasierako gaitzespena, eta babes orokorra eragin positiboa ikusi ondoren.

003

Patroi Narratiboak



Profilaren eboluzioa:

1. eta 2. patroiekin alderatuta, **patroi honek prebalentzia nahiko egonkorra mantendu du entzute prozesu osoan zehar**. Bere intentsitatea ez da nabarmen handitu, baina ez da murriztu ere. Ikuspegi bat adierazten baitu, ez hainbeste hedapenari buruzko informazio zehatzean oinarritua, baizik eta eskualdearen geldialdiaren irakurketan. Patroi honetan kokatzen diren pertsonak ez daude proiektuaren xehetasun guztiak ezagutzeko zain; haien proiektuarekiko babesa aldaketa estruktural bat behar dela eta eskualdeak proiektu eraldatzaile bat behar duela sentitzen dutelako sortzen da.

Interpretazio kolektiboko saioek ñabardura garrantzitsu bat agerian utzi dute: **ez da “bai edozein prezioan”, baizik eta “bai, mugimendua beharrezkoa delako”, eta horrekin batera ingurumen erregulazioa eta argitasun instituzionala eskatu dute**. Museoko hedapena inflexio puntu posible gisa agertzen da, ez proiektu identitario gisa bere horretan.

Metodologikoki, patroia hau iragan hurbilean enplegu eta ongizate ekonomiko oparoa izan duten testuinguruetan agertzen da, non ekintzak lehenestea eskatzen den kautelazko jarreraren gainetik. Patroiaren egonkortasunak adierazten du, anplazioaren proiektuak guztiz konbentzitu gabe ere, proiektu honen dimentsioak kolektibo desberdinak elkartzeko gaitasuna duela, eskualdeak ekintza, mugimendu eta etorkizuna berreskuratzeko premia izanik.

Azken hilabeteetan proiektuaren garapen teknikoaren zailtasunei buruzko adierazpen instituzionalen ondorioz, **patroi honek bere frustrazioa adierazten du, eskualdearentzat beste aukera galdu bat bezala ulertuz**. Narratibek ohartarazten dute “efektu dominoaren” arriskua proiektua ez bada gauzatzen: aurreikusitako inbertsioa gal daiteke, eta Guggenheim Museoak eskualdearentzat izango lukeen aurreikusitako “efektu traktoreak” kontrako eragin bat sor dezake.

004

Laugarren patroi narratiboa

Patroi Narratiboak



“Egiten den moduaren arabera, ez daukat behar adina informazio”.

- Laugarren patroi honek ez du posizio guztiz definitua eta ekimenaren garapenaren arabera, museoa handitzearen alde edo kontra agertuko liratekeen pertsonak ordezkatzeko ditu.

Aurreko patroiekin partekatzen dute informazio faltaren kritika, eta horregatik uste dute ezin dutela jarrera argirik izan. Patroi hau bitarteko eremu batean mugitzen da, non informazio estrukturalaren faltak edozein jarrera baldintzatzen duen.

Ez du proiektuari printzipioengatik uko egiten, baina ez du ere babesten: bermeak, konparazioak, eszenatokiak eta datu egiaztagarriak behar ditu. Adierazten duena ez da erresistentzia, baizik eta kontuz ibiltzea eta arduraz jokatzeko jarrera.

004

Patroi Narratiboak



Profilaren eboluzioa:

Interpretazio kolektiboko saioetan, patroi narratibo honetatik hurbil dauden pertsonak tarteko posizioetan mantendu dira, egiaztagarria den informazioa eskatuz eta argi utziz bere jarrera proiektuaren zehaztapenaren menpe dagoela. Ez dute haien burua ordezkatuta ikusten 1. patroia proiektuaren ukazio zuzenean eta ezta 3. patroia bultzadan ere.

Prozesuak aurrera joan ahala, informazio nahikorik ez izateak eta proiektuaren inguruan ibilitako interpretazio desberdinek, komunikazio zikloari eta hedabideetan agertu diren informazioei lotuta, pixkanaka-pixkanaka ahots hauek posizio zehatzagoetara bultzatu dituzte.

Parte esanguratsu batek bere jarrera 2. patroira aldatu du, proiektu territorial egituratu baten beharra eta garapen ereduari buruzko eztabaida zabalagoa lehenetsiz. Beste zenbait ahots 3. patroira joan dira, aukera eta mugimenduaren pertzepzioak erakarririk, eta beste batzuk 1. patroira lekualdatu dira, estuarioaren inguruko ingurumen eta babes neurriak argi ez zirela ebazten interpretatzean.

Ikuspegi metodologikotik, patroi honek adierazten du konplexuak diren patroi narratiboen ekosistemetan ohikoa izaten dena: informazio markoak osatu gabeak edo aldakorrak direnean, posizio baldintzatuak handitzen dira, baina berraztertzen dira inguruan narratiba sendoagoak agertzen direnean.

4. patroia honek funtzionatu du pasabide gisa posizio finko gisa baino, eta bere eboluzioa gizarteari datu egiaztagarriak eta bermeak eskaintzeko gaitasunarekin lotuta egongo da.

005

Bosgarren patroi narratiboa



“Nire iritziak ez ditu gauzak aldatuko”.

- **Prozesu parte-hartzaileei eta instituzionalei dagokienez, ezintasuna, desafekzioa eta eszeptizismoa adierazten duten pertsonak dira bosgarren eredu horren ordezkari nagusiak.**

Haien ustez, haien ahotsak ez du erabakien norabidea aldatzeko adina kontatzen. Askotan ziurtzat ematen dute instituzioek erabakia hartua dutela, eta beraz, parte hartzeak ez du zentzurik. Patroi horri atxikitako pertsona batzuk entzute prozesuan parte hartzen ari dira, baina eszeptizismoz egiten dute.

005



Profilaren eboluzioa:

Patroi honek garrantzi handia hartu du analisi narratiboan. Kolektibo zaurgarrien zailtasun ekonomikoak eta parte-hartze prozesu tradizionalekiko konfiantzarik eza azpimarratzen dituzten pertsonak eta argudioak konbinatzen ditu. **Eskualdeko egiturazko arazoak kondensatzen ditu eta museoaren eztabaidatik haratago doazen ordezkaritza arrakalak ikusgarri egiten ditu.** Patroi honek ez du hainbeste funtzionatzen proiektuaren aurkako edo aldeko jarrera gisa, baizik eta museoaren handitzeari buruzko eztabaidarekiko desafekzio eta distantzia sentimendu gisa, eskualdeko beste arazo estruktural batzuetan arreta jarritz.

Metodologikoki, patroia honek gogorarazten du, **pertsonek benetako eragin ahalmenik ez dutela sentituz gero, edo elkarrizketa publikoa erakunde eta komunitateetatik urrun dagoela sumatzean, uzkurtxera izaten dela joera.** Erronka ez da ahots hauek “bai” edo “ez” posizio batera eramatea, baizik eta parte hartu nahi izateko baldintzak sortzea, ahalegina alferrikakoa ez dela sentiarazteko.



Prebalentziak

Aurretik adierazi bezala, prozesuaren hasieratik, narratiben arkitektura bat ikusten da museoaren hedapenaren aukerari buruzko bost posizio nagusi barnebiltzen dituen. Ez da posible gehiengo edo gutxiengoez hitz egitea —ikerketa kualitatiboa delako—, baina bai prebalentziez, tendentzietan, presentzia eta dentsidadean, argumentuen garapenaren heldutasunean edo denboran izan duten errepikapenetan oinarrituta. Prebalentziak interpretatzea posible izan da narratiben bolumena, maiztasuna eta intentsitatea, eta 2025ean egin diren zazpi kontraste saioei esker, patroi narratiboei buruzko aurretiazko txostenean jasotzen den bezala.

Prozesuaren lehen fasean (otsaila-ekaina), posizio nagusia 1 patroia zen, hau da, museoaren hedapenaren aurkako aurkako jarrera zuzena. Nagusitasun hau batetik elur bola laginketa logikarekin azaltzen da (pertsona aktibo eta mobilizatuen ahotsak jasotzen dira lehenik) eta bestetik proiektua baztertzeko iritzien kontzentrazioarekin. Narratiba hauek eduki indartsua dute ingurumen, lege eta elementu sinbolikoen aldetik, eta ekologian profil altuko adituak, ingurumen aktibistak, kultur sektoreko profesionalak eta turismo masiboak eragindako kalteengatik kezkatutako

bizilagunak biltzen dituzte. Patroi honek beste zentzu sakon bat ere jasotzen du: turistifikazio, masifikazio eta espazio natural bakarra eta preziatua betirako eraldatzeko beldurra. Pertsona hauentzat, ingurumenaren defentsak balio du marko legítimo bezala, eskualde baten kontrola galtzeko beldur zabalago bat adierazteko - turismo-dentsitate altuko prozesuak bizi izan dituen (San Juan de Gaztelugatxeren kasua)- eta egunerokotasunean ondorioak ikusten dituen: etxebizitzarenganako presioa, mugikortasun kongestioa, paisaiaren degradazioa eta lurraldetik kanporatze sinbolikoaren sentsazioa. Arrazoi teknikoaren eta emozio territorialen arteko konfluentzian dago patroi honen hasierako indarra, mobilizatutako sektoreak, adituak, aktibistak eta turismo masiboaren eraginez kaltetutako bizilagunak biltzen dituen.

Hala ere, prozesuak aurrera egin ahala, eta interpretazio kolektiboko saioen ondoren, prebalentzia 2. patroira aldatu zen, eta gaur egun 2. patroia da patroirik esanguratsuena. Patroi horrek ezetza adierazten dio museoren proiektuari, baina eztabaidaren grabitate zentroa eskualdeko garapen eredura eramaten du. Zeharkakotasun gehiago duen profila da, eta eremuaren narriadura ekonomikoaz, industria


faltaz, etxebizitza eskasiaz eta Busturialdea-Urdaibairako marko estrategiko koherente baten beharraz kezkatuta dauden pertsonak biltzen ditu. Museoaren aurka daude, bai, baina irakurketa zabalago batetik: proiektuak ez die lurraldearen benetako lehentasunei erantzuten. Profil hori aberastu egin da 4. patroitik eta azaleratzen ari diren diskurtsoetatik datozen ñabardurekin: hasieran “depende” esaten zuten batzuk azkenean “ez” horretan kokatu dira, baina lehentasuna etorkizun sozioekonomikoa da. Hurrengo esaldian laburbildu daiteke patroia hau, “ez museoaren handitzeari, baina bai garapenari”.

Aldi berean, 3. patroiak (“proiektuaren alde”) prebalentzia egonkorra izan du. Oso posizio desberdinak dituzten profilak biltzen ditu: nolabaiteko egonkortasun ekonomiko eta profesionala duten pertsonak, museoaren palanka bultzatzaile gisa ikusten dutenak; turismo sektoreko enpresak, ostalaritzan eta zaintzan lan egiten duten eta egoera zaurgarriagoan dauden pertsonak; eta barnealdeko herri txikiak biztanleak, gainbehera larria sentitzen dutenak eta museoan mugimendu eta proaktibitate seinala bat ikusten dutenak, urteetako eztabaida hutsalen ondoren.

4. patroia (“egiten den moduaren arabera”), hasierako faseetan

presentzia handiagoa zuena, diluituz eta posizio zehatzagoetara birbanatuz joan da: zati bat 2. patroira eta beste zati bat 3. patroira. Profil horren ezaugarri bereizgarria da informazio argia, datu egiaztagarriak eta ingurumen bermeak etengabe eskatzen dituela. Informazio faltak pertsona horietako asko azkenean kontrako posizioetara eramanez ditu.

Azkenik, 5. patroiak (“nire iritziak ez ditu gauzak aldatuko”) gero eta garrantzi kualitatibo eta kuantitatibo handiagoa hartu du. Patroi honetan beren baldintza materialek (bereziki etxebizitza, lan prekarietatea, garraioa edo zaintza) edozein eztabaida kultural itzaltzen dutela sentitzen duten ahotsak sartzen dira. Bat egiten duten hainbat azpitalde daude: lurraldearekiko deserrotze sentsazioa duten gazteak; ostalaritzan eta zaintzan enpleguaren zati handi bati eutsi arren, eztabaida “eurena ez dela” eta eragiteko gaitasun oso txikia dutela adierazten duten pertsona migratuak edo erakundeengan mesfidantzagatik parte hartzen ez duten ahotsak.



Ondorioak





1. Parte hartzea

Parte hartzea askotarikoa eta heterogeneoa izan da. Prozesuak 1002 narratiba jaso ditu, eta horrek erakusten du eskualdearen etorkizunerako ekarpen esanguratsua egiteko interesa eta borondatea dagoela. Elkarrizketen eta etnografiaren bolumen horri esker, posizio esplizituak ez ezik, bestelako pertzepzio, tentsio eta patroik narratiboak ere ikus daitezke, kontsulta dispositibo tradizionaletan agertzen ez direnak. Aniztasunak ez dakar argudioen arteko simetriarik, baina bai lurraldea ordezkatzeko duen mapa narratibo bat. ALCtik eta AC4tik biziki eskertzen dugu elkarrizketa horiek egiten denbora eman duten pertsonen parte hartzea. Era berean, prozesuan parte hartu nahi izan ez duten pertsonak errespetatzen ditugu.

Gazteen parte hartzea txikiagoa izaten hasi zen, baina perspektiba hauek lortzeko ahalegina eginez, batez ere antolatu gabeko ikuspegiak jaso nahian, 18 eta 29 urte bitarteko parte-hartzaileen %13,49ra iritsi gara. 45 eta 65 urte bitarteko biztanleriaren presentzia handia da beste adin tarte batzuekin alderatuta (%42,89). Datu horiek, neurri handi batean, eskualde zahartu baten demografia islatzen dute.

Entzute prozesuak proiektu hau ikusteko modu desberdinak argitara ateratzea ahalbidetu du. Ez dago ikusteko modu bakarra eta ñabardura asko daude. Zuri beltzeko argazki baten aurrean, koloretako argazki eta irudi asko ditugu orain, ikuspegi aberatsagoa eta konplexuagoa ematen digutenak.

2. Sinesgarritasuna

Mobilizatutako sektoreetan, hasiera batean, kezka agertu zen prozesuak aldeztu aurretik hartutako erabakiak legitimatzeko balioko zuelakoan, dinamika komun bat prozedura huts gisa jotzen diren partaidetza aurrekariak dituzten testuinguruetan. Hala ere, uztailaren lehen emaitzak argitaratzeak, eta ingurumen kritikak, kritika sinbolikoak eta legalak osorik jasotzeak, aldaketa nabarmena eragin zuen prozesuaren zintzotasun metodologikoari buruzko pertzepzioetan. Une horretatik aurrera, entzute prozesuak narratiba gehiago bildu ditu, entzute prozesua independentzia irizpide nahikoarekin jarduten ari dela uste dutenak, eztabaida publikorako gune legitimo bilakatuz. Mesfidantza ez da erabat desagertzen, baina ñabardura esanguratsuak sartzen dira.

Prozesuari dagokionez, egiaztatu dugu denboran zehar jarraipena duen entzute mota hau garestia dela (maila materialean eta humanoan) eta zailtasunak sortzen dizkiela erakundeei, azken emaitzei buruzko gardentasun eta ziurgabetasun mailagatik. Hala ere, egiaztatu dugu horrelako esku hartzeek konfiantza handiagoa sortzen dutela gizartean, politika publikoaren eta herritarren pertzepzioaren arteko deskonexioak kontratu sozialaren oinarriak zalantzan jartzen dituen testuinguru honetan.

3. Adostasunak

Desberdintasunak badaude, baina baita adostasun handiak ere, eskualdearen garapenaren inguruan. Jasotako narratiben arabera, inork ez du zalantzan jartzen ingurumenaren babesa eta Busturialdea-Urdaibaiko garapen sozio-ekonomikoa edo Biosferaren Erreserbaren markoa errespetatzeko beharra. Nazioarteko mintegian egiaztatu ahal izan zenez, ez daude horren adostasun zabalak sortzen dituzten antzeko gatazka askorik. Adostasun horiek zume paregabeak dituzte, aniztasunetik abiatuta, eskualdean etorkizun partekatua eraikitzeko.

Museoa eztabaidaren zati garrantzitsu bat da, baina entzute prozesuak begirada zabaltzera eta eskualdean giza garapen jasangarria bultzatzen jarraitzeko erronka eta aukeretan arreta jartzera gonbidatzen gaitu.

4. Inklusioa

Migratutako pertsonen narratibei dagokionez, erabaki guneetatik bi norabideko bazterketa tazitoaren erronka identifikatzen dugu, ez nahitaez eskualdeari dagokiona, baizik eta euskal gizarte osoari dagokiona. Alde batetik, uztailean argitaratutako aurretiazko ondorioetatik abiatuta, narratiba askok harridura adierazten zuten migratutako pertsonen artean proiektuaren aldeko argudioak ezagutzean. Kolektibo horren zati handi batek proiektua babesten du lan arrazoiengatik (turismoa eta ostalaritzaren indartzea), eta horri lotuta eztabaida “ez dela berea” sentitzen du, eragiteko gaitasun txikia baitauka.

Etorkizunari begira, egokia litzateke komunitate horiek eta beste kolektibo batzuek eskualdearen garapenari eta Euskal Herri osoan landu beharreko trantsizioei buruzko eztabaidan parte hartzeko eta aitortzarako mekanismo espezifikoak aztertzea.

5. Kontraesanak

Jasotako narratiben analisiak kontraesan ugari erakusten ditu, ez bakoitzarenganako gaitzespen gisa, baizik eta gizartearen parte diren eztabaida irekien adierazle gisa. Gogor kritikatzeko da pisu turistikoaren eragina, baina etxebizitza horietako asko tokiko jabeenak dira. Identitatearen defentsa eta euskaraz artatua izateko eta bizitzeko nahia elkarbizitzan dago beti aitortua eta integratua ez den eskulanaren dependentzia handiarekin. Biosfera Erreserba balio partekatu eta ondasun komun gisa aipatzen da, baina, aldi berean, espazio publiko batzuen erabilera ia pribatua defendatzen da, aisialdirako eta eguneroko paseoetarako esaterako. Aldi berean, ingurunea zaintzeko beharra aldarrikatzen da, baina ibilgailuaren erabilera indibidualarekiko mendekotasun handia mantentzen da. Azkenik, lehen sektorearen babesa aldarrikatzen da etengabe, baina horrek gehiago eragiten du identitatearen sinbolo gisa, belaunaldi berrientzako perspektiba bital errealista gisa baino. Pertsona askok arrantza eta nekazaritzarentzako babesa eskatzen dute, baina ia inor ez dago bertan lan egiteko prest, eta ez du nahi bere seme-alabek horretan lan egiterik.

Gizarte eta gizaki guztiei dagozkien kontraesan horiek ez dituzte narratibak baliogabetzen, ñabardurak egiten dituzte eta haien konplexutasuna islatzen dute. Entzute prozesuak moralizatu gabe izendatzeko aukera ematen du, autokritika partekatuko gune bat irekitzeko. Jarrera guztiek egiaren zati bat badute, guztiek dute inkoherentziaren zati bat, eta hori naturaltasunez onartu beharko da, baldin eta garapen eredu zintzoagoa eta iraunkorragoa eraiki nahi badugu.

6. Garapen eredua ardatz gisa

Identifikatutako narratibek kontserbazioaren, turismoaren, etxebizitzaren, enpleguaren eta mugikortasunaren arteko efektu gurutzatuak ikusarazteko aukera ematen dute. Interes legitimoak dituzten baina tentsioan dauden eragile ugari. Horregatik, narratibek islatu dute eztabaida ez dela soilik museoa zabaltzeari buruzkoa, baizik eta eskualdeko trantsizio sozioekologikoari nola heldu eta eskualdeko eragile bakoitzak zer paper izan dezakeen.

Testuinguru horretan, Guggenheim museoa Urdaibain zabaltzeko aukerari buruzko desadostasuna “*proxy*” bihurtu da, eskualdearen eredu sozioekonomikoari eta eraldaketari buruzko eztabaida sakonagoaren ordezkari, alegia. Narratibak bi adostasun zabaletan elkartzen dira: biosferaren babesa eztabaidea ezina da, baina proposamen sozioekonomiko bideragarriekin batera joan behar du; eta turismoa jada ez da balio positibo gisa ikusten termino absolutuetan. Lehen oparotasunaren eragile jotzen zena, gaur egun etxebizitzarako, mugikortasunerako eta gizarte kohesiorako arrisku ikusten da. Patroi gehienek eredua garapen modu orekatuagoetara bideratzea eskatzen dute, enplegu egonkorrarekin, tokiko itzulkin eta presio turistikoari mugekin.

Entzute prozesuak aukera eman digu euskal gizarte osoari eragiten dioten kezkak eta kontraesanak ikusarazteko, ez bakarrik Urdaibairi dagozkionak. Turismo jasangarriaren eredu berri bat eraikitzea, eskualde guztietako trantsizio sozioekologikoa babestea eta errealitate bera hautemateko modu desberdinak ulertzea gu guztiok interpelatzen gaituzten erronkak dira.

7. Ñabardura berriak

Bai proiektua errefusatzeko duten parte hartzaileak, bai proiektua babesten dutenak edo zalantzak dituztenak bat datoz: lurraldeak jardun, mugitu eta erabaki estrategikoak hartu behar ditu, biosferaren erreserba batean garapen berdearen aitzindari gisa. Hasierako *Not In My Back Yard*-ek (“nire etxetik urrun”, zeinean proiektuari uko egiten zioten pertsona askok begi onez ikusten zuten Enkarterrin gauzatzea) Urdaibairen etorkizunean ardaztutako posizio zehatzago baterantz eboluzionatu du. Bilakaera hori funtsezkoa da: adierazten du erresistentzien zati handi bat ez dela estatikoa, baizik eta agertoki alternatiboetara irekitzen dela ingurumena babesteko, lurralde-koherentziako eta gizarte itzulkin irizpideak betetzen badituzte. Sortzen ari den ñabardura hori bereziki garrantzitsua da etorkizuneko politika publikoko agertokietarako, irtenbide negoziatuagoak eta ez hain polarizatuak imajinatzeko aukera ematen baitu.

Prozesuak berak eskualdeko proiektua eta garapena ikusteko hainbat modu kontrastatzeko aukera eman du. Kontraste horri esker, lehen diskurtsoetan ez zeuden ñabardurak sartu dira.

8. Loteslea edo ez loteslea?

Busturialdea-Urdaibaiko entzute prozesua hasiera hasieratik sortu zen dispositibo ez lotesle gisa. Bere helburua eztabaida aberastea izan da. Hala ere, prozesuaren ikaskuntza nagusietako bat da, formalki loteslea izan gabe, ondorio material eta politiko errealak izan dituela, eztabaidaren esparrua berrantolatuz, eztabaida aberastuz eta erabakiak hartzeko prozesuan lagunduz.

9. Entzute prozesua, lankidetzazko gobernantzarako dispositibo

Pertzepzioen bilketa soilaz haratago, prozesuak lankidetzazko gobernantzarako tresna gisa funtzionatu du. Museoa handitzearen aurkako sektoreetan bereziki, bere kezak eta proposamenak entzunarazteko, kontrastatzeko eta ikusteko gune bihurtu da. Erakunde publikoek, bestalde, komunitatearen eremuan informazioa taldean entzuteko eta interpretatzeko tresnak txertatzeak dakartzan zailtasunak eta balio erantsia bizi izan dituzte.

Hori da nazioarteko mintegiak planteatzen digun ikaskuntza handienetako bat. Proiektuen hasieran eta amaieran momentu puntualetan entzun beharrean, lankidetzazko gobernantza prozesurik emankorrenak dira lurraldearekin etengabeko entzute eta interakziorako gaitasuna garatzen dutenak, eta horrek aukera ematen du aldaketak eta egokitzapenak egiteko ekimen konplexuei denbora errealean. Sare antolatuekin ez ezik, herritarrekiko zuzeneko interakziorako bideak ere sor daitezke.

Museoa handitzeko proiektuarekin ez jarraitzeko erabakia hartu ondoren, proiektuaren aurka zeuden erakundeek beren kezak eta iradokizunak aintzat hartuak izan direla ikusi dute. Aldi berean, prozesu hori erraztu duten erakundeek, normalean gehiegizkotzat jotzen diren arrisku politiko eta elektoralak beren gain hartuz, sentitu ahal izan dute eskualdearen garapenaren aldeko apustua ekarpen oso zehatzekin aberastua izan dela. Eragile sozial eta instituzional horien ahalegin guztiak aitortu beharko lirатеke. Zero gehitzen duen konfrontazio bat beharrean, entzute prozesuak aukera eman du etorkizuneko agertoki bat ikusteko, non eskualde osoak irabazten duen.

10. Eta orain zer?

Hemendik aurrerako erronka ez da eztabaida ixtea, baizik eta eztabaidari berriro ekitea eta eduki berria ematea, sortutako hutsunea paralisi edo desafekzio bihur ez dadin. Unean uneko irtenbide berriak planteatu beharrean, jasotako narratibek egungo plan estrategikoa indartzea eskatzen dute, dagoeneko konprometituta dauden azpiegituretan egin beharreko inbertsioak osatzeko ekimen berriekin. OCDEk horrelako prozesuetarako iradokitzen duen bezala, ekimen horiek entzute prozesuan jasotako tematikak jorratu beharko lituzkete (Etxebizitza, Garraioa, Kultura, Enplegua, Turismoa, Kultura eta Ekologia), arlo jakin batean ahalegin guztiak jarri beharrean. Inbertsioaren arriskua kontrolatzeko eta ikuspegi guztiek beren iritzia kontuan hartzen ari direla ikus dezaten ahalbidetzeko modua da. Plan estrategikoa ezartzeko eskualdeko eragileek arteko elkarrizketa prozesuak zehaztuko du zeintzuk sustatu beharko diren etorkizunean eta zeintzuk baztertu.

Jasotakoaren arabera, entzute prozesua aktibo egon liteke tokiko lidergoarekin (dauden beste parte hartze prozesu batzuk integratuz), kontraste eta deboluzio publikorako espazio egonkor gisa, izaera pedagogikoa eta esperimentala indartuz. Horrek ahots berriak sartzen jarraitzea ekarriko luke – bereziki gazteak, pertsona migratuak eta udalerri txikietako biztanleak –, belaunaldien arteko eta lurraldeen arteko elkarrizketa lantzea, eta garapen agertoki berriak simulatzeko gai diren tresnak aztertzea (narratibak datu enpirikoekin konektatzea eta hainbat erabakiren lurralde inpaktuak aurreikustea). Entzute prozesua, eztabaida zehatz batean agortu beharrean, babesaren eta garapenaren arteko tentsioak kudeatzeko tresna estrategiko bihur liteke, nortasuna, jasangarritasuna eta ongizatea uztartuko dituen proiektu kolektibo bat artikulatuz.

Prozesuaren indargune nagusia da dinamika sozialak ikusarazteko eta aztertze gaitasuna duela, eta dinamika horiek ukiezinaren mailan egon ohi direla. Esanahi kolektiboa, ezkutuko tentsioak eta narratibak politika publikoetarako adimen garrantzitsu bihurtzea, prozesuaren ekarpen nagusietako bat da. Lurraldea osatzen duten kontakizunen eta harremanen aniztasuna identifikatzeko aukerak, diagnostikoa aberasteaz gain, erabaki jakin batzuekiko legitimitatea — edo mesfidantza — sozialki nola eraikitzen den ulertzeko aukera ematen du.

Esperientzia hau kontuan izanda, esan dezakegu Urdaibaik baldintza guztiak betetzen dituela uskal gizartearen Giza Garapen Iraunkorrerako ikaskuntza aurreratuko gune bihurtzeko. Inguruaren ezaugarriez gain, lurraldearen eraldaketa berri bat bultzatzeko ahalegin instituzional eta sozialek eta, batez ere, herritarren konpromisoak talentua eta inbertsioak erakartzeko aukera ematen dute, ondoren Euskal Herri osora eskalatu daitezkeen ekimen zehatz batzuk probatzeko.

Etorkizuna



Urdaibain garatutako esperientziak atea irekitzen dio lurralde gobernantzaren eredu aurreratuagoetarako bideari. Sortutako datu-base kualitatibo eta erlazionala datu sozialen lehen katalogo bat da, eta informazio objektiboa (eragileak, ekimenak, politikak, adierazleak) nahiz informazio subjektiboa (narratibak, pertzepzioak, ulermen markoak) biltzen ditu. Entzute prozesu honetarako ALC eta AC4ek sortutako plataforma digitalak aukera ematen du denboran zehar tokiko narratibek eta pertzepzio kolektiboek izan duten bilakaera aztertzeke, bai eta aktoreen mapa dinamikoa eta udalerrien, erakundeen eta sektoreen arteko interkonexioak bistaratzeko ere. Horrela, gobernantzaren azpian dagoen gizarte-ehuna kolektiboki behatu, arakatu eta uler daitekeen zerbait bihurtzen du.

Horrela, tresna digitalak funtsezko funtzio integratzailea betetzen du: datu kualitatiboak — narratibak, profil etnografikoak eta metanarratibak — harreman eta erakunde egiturekin konektatzen ditu, erabakiak hartzen diren gizarte substratuak denbora errealean nola eboluzionatzen duen ikusteko aukera emanez. Gaitasun hori bereziki garrantzitsua da konplexutasun handiko testuinguruetan, non

erabakiak ez dauden soilik aldagai teknikoen mende, baizik eta esparru kulturalen, konfiantzazko harremanen eta pertzepzio partekatuen mende.

Agertoki horretan, posible litzateke ekonomia edo ingurumen joerak proiektatzera mugatzen ez diren simulazioak aztertzea — hala nola etxebizitzaren prezioak edo klima inpaktuak —, baizik eta narratiben, konfiantza mailen eta esanahi kolektiboen bilakaera ere barne hartzea, lurralde garapenaren erabaki estrategikoei erantzuteko. Ikuspegi horrek aukera handia ematen du euskal erakundeek gobernantza kolaboratiboan berrikuntzaren alde egiten duten apustuan sakontzeko.

Entzute prozesuan jasotako informazioa funtsezkoa da Biki Digital Sozialak eraikitzeke bidean aurrera egiteko, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak denbora errealean integratzen dituzten sistema sozial eta kulturalen dinamiken irudikapen digital gisa ulertuta. Eredu prediktibo tradizionalek ez bezala, sistema horien helburua ez da giza erabakiak ordezkatzea, baizik eta erakundeek egoera konplexuak ulertzeko eta kudeatzeko duten gaitasuna handitzea eta balizko inpaktuak eta arrisku sozialak aurreikusteko duten simulazioak egitea.

Ikuspegi horretan, teknologiak mundu fisikoaren eta digitalaren arteko bitartekari gisa jarduten du, eta prozesu ez-linealetara eta narratiba kolektiboetako aldaketetara egokitzen den bi norabideko informazio fluxua ahalbidetzen du. Aldagai teknikoak ez ezik, konfiantza mailak edo onarpen sozial edo polarizazioa ere txertatzen duten agertokiak simulatzeko aukerak erabaki publikoen kalitate demokratikoa hobetzeko abagunea sortzen du.

Esperientzia kolektiboari esker, informazio hutsune garrantzitsuak identifikatu ahal izan dira: oraindik gutxi ordezkaturako ahotsak, atzematen zailak diren harreman loturak, ingurumen inpaktuei, etxebizitzari edo mugikortasunari buruzko datu kuantitatibo kontsolidatuen falta, eta informazio normatibo edo administratiboa eskuratzeko mugak. Aldi berean, gabezia horiek aukera berriak ematen dituzte. Tresna digitalak iradokitzen du etorkizunean prozesuaren fase batzuk zabaldu edo partzialki automatizatu daitezkeela, bilketa eta analisi sistematikoagoak erraztuz.

Dagoen oinarri kualitatiboa geruza legal, administratibo, kuantitatibo eta ingurumenekoekin konbinatuz gero, lurraldearen eredu bizirantz

eboluzionatu ahal izango litzateke, aldaketa dinamikak islatzeko ez ezik, aurre hartzeko ere gai izango litzatekeena.

Hala ere, eredu horien garapenak erronka esanguratsuak ere planteatzen ditu: informazio kualitatiboaren bolumen handien kudeaketa, giza kuradoretza adituaren beharra, analisi narratiboa automatizatzeko zailtasuna testuingurua eta esanahia galdu gabe, eta opakotasun algoritmikoari lotutako arriskuak. Hori dela eta, norabide horretan egiten den edozein aurrerapen inklusioaren, gardentasunaren, kontu-ematearen eta kontrol demokratikoaren printzipio argiak izan behar ditu oinarri, eta teknologia horiek deliberazioaren zerbitzura dauden ondasun publikotzat hartu behar dira, eta ez kontrolerako tresna teknokratikotzat.



